Asimismo, durante la jornada, se analizaron las tendencias de futuro en el sector y se pudieron ver prototipos físicos y casos de estudio realizados mediante el empleo de varias técnicas. Durante la jornada se pudo visualizar la drástica evolución que el Prototipado Rápido ha tenido en los últimos años.

ACTUALIDAD Y FUTURO

En la actualidad, además de la generación de prototipos físicos tanto en materiales plásticos como en metálicos, permite desde la fabricación de piezas funcionales de series reducidas en precisión y costes competitivos, hasta la fabricación directa de útiles y moldes para series medianas o incluso grandes.

Por todo ello, se ha convertido en una de las principales tecnologías para la fabricación de productos personalizados de diversos sectores, como prótesis dentales, prótesis de fémur, zapatillas, piezas de juguetes, etc.

"El prototipado rápido permite desde la fabricación de piezas funcionales de series reducidas en precisión y costes competitivos, hasta la fabricación directa de útiles y moldes para series ".

Según los ponentes, el motivo es claro: "Es la manera más rápida y económica de obtener una réplica exacta tridimensional de un diseño generado mediante aplicación CAD en 3D".

Para ello, no sólo han evolucionado los equipos y las tecnologías, sino que los materiales trabajados han sufrido un cambio notable, y hoy en día las tecnologías son capaces de procesar las resinas fotopolimérica, plásticos rígidos como el ABS o blandos como la silicona, metales como el titanio, aceros bimetálicos, etc., hasta materiales similares a la madera.

La apertura de la jornada, fue a cargo de Felip Esteve, director de la Asociación Española de Rapid Manufacturing (ASERM); Mari Carmen Vicente, del Ministerio de Ciencia e Innovación; Joan Guasch, de la Fundació ASCAMM (centro tecnológico de diseño y producción industrial) y de los profesores e investigadores de la Escuela Politécnica Superior de MU Lander Galdós y Done Ugarte.

GEP GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ENPRESAGINTZAKO BOST IKASLE SIZILIAN IZAN DIRA, "LIBERA TUTTI" PROIEKTUA GARATZEKO ASMOZ

APIRILAREN 28TIK MAIATZAREN 6RA BITARTEAN ENPRESAGINTZA FAKULTATEKO BOST IKASLE (SARA CASTILLEJOS, LEIRE IRIZAR, AITOR SALABERRIA, DAVID OLAIZOLA ETA GARAZI GALAN) ETA IOSU LIZARRALDE ENPRESAGINTZAKO IRAKASLE ETA MIK-EKO IKERLARIA SIZILIAN IZAN DIRA, "LIBERA TUTTI" PROIEKTUAREN BAITAN.

ARGAZKIA: MU

Siziliako bihotzean dagoen Corleone herrian egonaldi bat egin zuten Europako Libera Tutti proiektuan parte hartzen ari diren MUko Enpresagintza fakultateko bost ikasle eta irakasle batek. Mondragon Unibertsitateko taldea beste zenbait unibertsitateko ordezkariekin izan zen; Errumania, Erresuma Batua eta Italiako ikasleak guztiak ere.

Besteak beste, Sizilian izandako egonaldian honako ekintzak egin zituzten: ekintzailetasunari lotutako *workshop*ak sistema legala eta erantzukizun soziala ardatz hartuta, mafiaren aurka eguneroko borrokan diharduten pertsonekin bilerak (kazetariak, nekazari txikiak, merkatariak…), eta mafiari atxikitako landetan eta helburu soziala jomugan, kooperatiba bat eratu simulazio bidez.

MAFIA OSO PRESENTE EGONALDIAN

Tailerrak Pio La Torre kooperatiban egin ziren, hain zuzen kooperatiba horrek mafiak eraildako diputatu baten izena darama haren oroimenez. Pio La Torre izan zen mafiari atxikitako lurrak gizartearen esku uzteko lege proposamena Italiako parlamentura eraman zuena eta lege horren sustatzaile nagusia. Harrezkero, mafiari atxikitako ondasunak helburu sozialetara bideratzen diren proiektuen sustatzaileen esku geratzen dira.

> "Pio la Torre izan zen mafiari atxikitako lurrak gizartearen esku uzteko lege proposamena Italiako parlamentura eraman zuena eta lege horren sustatzaile nagusia".

Pio La Torre kooperatiba 12 langilek abiarazi zuten, eta hasierako prozesuan beste hainbat eskualdetako lagunen ekarpenak jaso zituzten. Mondragon Unibertsitateko eta Europako gainerako unibertsitateetatik joandako ikasleek mafiaren gaia oso gertutik aztertzeko aukera izan zuten. "Mafia fenomenoari buruz hitz egin zen eta herritarrek mafiari erantzuteko aukerak zeintzuk diren jorratu genituen; besteak beste, kooperatiba baten bitartez eman daiteke erantzun egokia mafiari", adierazi digute MUko ordezkariek.

Esperientzian parte hartu duten ikasle eta irakasleek Italian egindako egonaldiaren oso balorazio positiboa egin dute. "Ekimena oro har eta, egin ditugun sareez gain, kultura arloan jaso dugun ezagutza oso aberasgarria izan da", gaineratu dute.

KOMUNIKAZIOA ERAKUNDEETAN ADITU TITULUA SORTU DU MU-K ESKORIATZAN

AINHOA LARRAÑAGA es la coordinadora del título experto sobre Comunicación en las Organizaciones.

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK ADITU TITULU BAT SORTU DU, KOMUNIKAZIOA ERAKUNDEETAN, ZUZENDUA LANEAN DIHARDUEN JENDEARI ETA LIZENTZIADUN BERRIEI.

2011ko urritik hasita, ostegun arratsaldero emango da Eskoriatzan, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Aditu tituluaren helburua da ulertzea komunikazio paradigma berriak eta horiek erakundeetan duten eragina, eta prestatzea ikasleak erakundeetako komunikazio jarioa bideratzeko. Zuzenduta dago, bestalde, lanean dabiltzanei enpresa, elkarte eta erakundeetan, batez ere komunikazioan; bestetik, aditu titulu hau oso egokia da enpresa-komunikazioaren nondik norakoak ezagutu eta menderatu nahi duten lizentziadun berrientzat.

"Aditu tituluaren helburua da ulertzea komunikazio paradigma berriak eta horiek erakundeetan duten eragina eta prestatzea ikasleak erakundeetako komunikazio jarioa bideratzeko"

Aditu tituluak 30 ECTS kreditu ditu, Europan onartutakoak, 15 edukietarako eta beste 15 proiekturako. Edukietan %25 presentziala izango da; gainerakoa, ikasleak bere kasa egin beharrekoa. Edukiak, bestalde, sei gaitan banatuko dira: 1. Enpresa eta erakundearen kultura berriak. 2. Komunikazio paradigma berriak. 3. Komunikazioa erakundeetan. 4. Baliabide teknologikoak. 5. Jarrerak komunikaziorako. Eta 6. Proiektua: definizioa, tutoretzak eta garapena. Hartutako kreditu kopuruaren arabera, ikasturte amaieran ikasleak jasoko du titulu bat edo beste, egindakoaren arabera.

HAMAR HILABETEKO IRAUPENA

Aditu titulu honetan eredu pedagogikoa proiektuetan oinarrituko da. Horretara, proiektu errealak oinarri hartuta (15 ECTS), ikaslea izango da ikaskuntzaren ardatz. Aditu tituluak 10 hilabete iraungo du, eta erabat praktikoa izango da. Matrikula uztailaren 4tik 15era eta irailaren 5etik 16ra egin daiteke. Urte batean euskaraz emango da; eta hurrengoan, gaztelaniaz. Hasteko, 2011-2012 ikasturteko lehenengo edizio hau euskaraz abiatuko da. Hala ere, bi ECTS ingelesez emango dira.

ELKARLANERAKO HITZARMENA HUHEZI ETA EIKEN ARTEAN

Maiatzaren 10ean MUren Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak (HUHEZI) eta Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak (Eiken) --bertan sektoreko enpresa handienak daude--, hitzarmena sinatu zuten Eskoriatzan. Hitzarmenaren arabera, HUHEZIk segituko du EikenBANK proiektua laguntzen. Horretaz gain, erakunde biek hainbat proiektu egingo dituzte; horietako bat, aztertzea zer egoeratan dagoen ikus-entzunezkoen sektorea EAEn.

LEHEN HIZTEGIAREN 3. ARGITALPENA.

Hogei urte igarota Lehen Hiztegia aurrenekoz kaleratu zenetik (garai hartan Irakasle Eskola estu zebilen diruz, eta oso ondo etorri zitzaion hiztegiaren arrakasta), HUHEZIk Lehen Hiztegiaren hirugarren edizioa atera du, Vox eta Anaya-Haritza argitaletxeekin batera. Hirugarren edizio hau Maria Jose Simonek koordinatu du, Asier Irizar eta Iñigo Ramirez de Okarizen aholkularitza akademikoarekin. Erredakzio lanak, berriz, Jose Luis Arangurenek eta Beatriz Zabalondok egin dituzte.

JON ALTUNA

"MASTER AKADEMIKOAK NAZIOARTERA HEDATU BEHAR DITUGU"

2011-2012 IKASTURTEAN MASTER AKADEMIKO BERRIEN ESKAINTZA OSATUKO DU MU-K. EUROPARA EGOKITUTAKO HAMAR MASTER ESKAINIKO DITU, GUZTIAK OFIZIALAK.

Datorren ikasturtetik aurrera hamar master akademiko eskainiko ditu MUk. Zeintzuk izango dira berrikuntza nagusiak?

Egituran eta izaeran egongo da berrikuntza nabarmenena. Aurrerantzean egitura ofiziala izango dute gure unibertsitate masterrek, alegia, ez ofizial izatetik ofizial izatera igaroko dira. Unibertsitateek eskaini ahal izango dituzte master ofizialak eta han bertan ebaluazio bat gainditu beharko dute. Gainera, akreditazioko agentzien ebaluazio bat gainditu eta Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren oniritzia beharko dute. Aldaketa horrek guztiak ekarriko du gaur egun ditugun bigarren zikloen egokitzapena. GEPeko Goi mailako Ingeniaritzak eta HUHEZI eta Enpresagintzako lizentziak egokituko dira, eta aurrerantzean master titulu bilakatuko dira.

Egituran bakarrik ez, izaeran ere aldaketak izan dira. Zein izaera izango du eskaintza berriak?

Orain arteko bigarren zikloko ikasketek izaera orokorra zuten, hau da, Goi mailako ingeniaritzek edo lizentziek formazio orokorra eskaintzen zuten. Bazegoen ikasketak egiteko beste aukera bat, lehenengo ziklo espezializatuago bat egin, ingeniaritza tekniko bat, adibidez, edo diploma bat, eta ondoren bigarren ziklo orokorreko ikasketak burutu. Bigarren zikloak ikuspegi orokorragoa eskaintzen zien ikasleei. Orain, berriz, kontzeptua aldatu egin da. Europako esparruak eredua aldatu du. Lehenengo gradua egingo da, lau urtekoa, oinarrizko formazioa eskainiko duena ,eta espezializazioa masterrarekin iritsiko da.

Masterrak kualifikazio maila altuagoa eskainiko die ikasleei?

Graduko hiru-lau urteko ikasketak irteera profesional interesgarria eskainiko du, baina masterrak beste espezializazio maila bat emango die, eta bostsei urtean oso formazio osatua lortuko dute ikasleek.

"Uztailean eta irailean irekiko da matrikulazio kanpaina. Interesatuek MUren fakultateetan eta webgunean dute informazioa eskura".

Nola egokitu dituzue bigarren zikloko ikasketak master eskaintzara?

Ez da erraza izan, eta horretan ari gara. Eskaintza berrian hiru bide bereiztuko nituzke. Batetik, egokitu behar izan ditugu dagoeneko bagenituen formazio kurtsoak, eta master bilakatu ditugu, adibidez KAP-ekoa HUHEZIn. Lehen ikastaro bat zen, eta orain master ofizial bilakatu da, eta formazio horri beste nortasun eta seriotasun bat eman zaio. Beste master mota batzuk ere egongo dira, bigarren zikloak master bilakatu baitira. Alegia, Industria Ingeniaritzako 2. zikloa orain master bilakatu da, edo Enpresagintzako MBA, hau ere ofizial bilakatu da. Hirugarren modalitatekoak dira filosofia berriarekin sortu ditugunak, espezializaziokoak. GEPen diseinu estrategikokoa, sistema txertatuak, HUHEZIn berrikuntza metodologikoa, Enpresagintzan Enpresa Kooperatiboen Kudeaketa… horiek guztiak sistema berriarekin sortu dira. Guztira hamar master akademiko ofizial izango ditu MUk; bost GEPen, hiru HUHEZIn eta bi Enpresagintzan.

Nori zuzenduta daude masterrak?

Master akademikoak, batez ere, zuzenduta daude lehenengo zikloa amaitu berri duten ikasleei, esperientzia profesionalik ez dutenei eta lan merkatura jo aurretik espezializazio maila nahi dutenei. Beste master batzuk, berrikuntzakoa HUHEZIn edo MBA Enpresagintzan… profesionalei zuzenduta daude.

Zein esango zenuke dela MUren eskaintzaren arrakastaren giltza?

Enpresa eta erakundeetatik gertu egoteak kalitatezko master profesional eta akademikoak eskaintzeko bidea ematen digu. Profesionalei zuzendutako eskaintza egin dugu, gure enpresei erantzutera dator gure eskaintzaren zati handi bat, eta horrek arrakasta eragin digu. Gure ereduaren arrakastaren giltza gertutasunean oinarritzen da.

ARGAZKIA: J. ARANZABAL

JON ALTUNA
Goi-Eskola Politeknikoko Koordinatzaile Akademikoa.

Zeintzuk dira zuen eskaintzaren ezaugarri nagusiak?

Esango nuke bost direla gure eskaintzak dituen ezaugarri nagusiak: praktikoak dira, espezializazio handikoak, enpresa eta erakundeetatik gertu daude eta enpresekin harremanak bultzatzen dituzte, naziortekotzea helburu dute eta ikerketara bideratuak. Hain justu ere, master guztietan ikerketa da elementu nagusia. Guk egiten dugun ikerketa erakunde eta enpresetatik oso gertu dago, eta etorkizuneko ikerlarien perfila masterretatik irtengo da.

Formatuan ere askotariko eskaintza duzue, ezta?

Bai, batzuk presentzialak izango dira 100%ean; eta beste batzuk *on line*, eta euren merkatua mundu guztia izango da; Hegoamerika, Europa… 100% presentzialak direnak Euskal Herria eta Estatua dute jomuga.

Masterren kasuan MUren proiekzioa zein da?

Euskal Herrian ondo kokatuta gaude, baina kanpora begira jarri gara aspaldiko urteetan, eta erronka nagusia hori izango da. Aliantzak sinatuko ditugu beste unibertsitate batzuekin, diploma bikoitzak eskaintzeko, gaur egun Frantziako zenbait unibertsitaterekin eskaintzen ditugunak bezala. Kolonbian edo Frantzian, dagoeneko horrelakoak eskaintzen ditugu-eta.

Zein da etorkizuneko erronka nagusia?

Nazioarteko proiekzioa izango duten masterrak eskaini behar ditugu. Masterrak planteatzerakoan eta egituratzerakoan, kanpora begira jarri behar gara, eta horretarako kanpoko unibertsitateekin ditugun aliantzetan sakondu behar dugu eta elkarlanean master bateratuak atera behar ditugu. Esango nuke hori dela erronka nagusia.

ORONA-EPS-MU-IKERLAN

MEJORANDO LA CALIDAD SONORA EN LOS ASCENSORES



IGOGAILUEK ERAGINDAKO ZARATAK ekiditu nahi dituzte Oronak, Goi Eskola Politeknikoak eta Ikerlanek. Kalitate akustikoa aztertzen aritu dira hiru erakundeak azken hilabeteotan.

EL EQUIPO DE TRABAJO FORMADO POR TÉCNICOS DE ORONA, EPS-MU E IKERLAN HA ANALIZADO EL COMPORTAMIENTO REFERENTE A LA CALIDAD ACÚSTICA DE DIFERENTES TIPOS DE ASCENSORES DE ORONA, PARA MEJORAR EL CONFORT DE LOS MISMOS

Habitualmente el ruido se mide y se cuantifica mediante el dB (decibelio), pero dos máquinas o productos cuyo ruido es muy diferente pueden generar el mismo número de dB-s a pesar de que a las personas los dos ruidos les puedan parecer muy diferentes y uno de ellos parecerles mayor que otro. Éso es debido a que el oído no escucha igual a todas las frecuencias. Por tanto, dependiendo del contenido frecuencial del ruido, se puede oir más bajo o alto que la energía sonora que en realidad tiene. Ésto, unido a la psicología humana, que en función del lugar, el momento o las expectativas de la persona ante el producto, el mismo ruido pueda ser clasificado como bajo, medio o alto, o como bueno, mediano o malo, hace que la utilización del dB para medir y cuantificar el ruido de un producto no sea la mejor opción.

CALIDAD SONORA

Fruto de este análisis, el equipo de trabajo ha llevado a cabo un proceso llamado Calidad Sonora, con la creencia de que es más fiable que el simple uso del tradicional dB, que consiste en:

• Medición del ruido del ascensor utilizando una cabeza binaural. Una cabeza binaural va provista de dos micrófonos y una cabeza artificial, para grabar el ruido de la manera en la que escuchamos los humanos, teniendo en cuenta las reflexiones del sonido en la persona. El tradicional dB, en cambio, se mide sólo con un micrófono.

•Escucha y análisis de los sonidos para identificar posibles ruidos transitorios (crujidos, chirridos…) y tener una visión detallada de los sonidos.

• Cálculo de una serie de métricas que tengan en cuenta diferentes aspectos del ruido: contenido frecuencial (¿es un sonido agudo, grave…?), variación temporal del sonido (¿es constante o el volumen cambia en el tiempo?), etc. Todas estas métricas sustituyen al dB tradicional.

• Realización de un análisis de jurado, consistente en reproducir el ruido grabado a una serie de personas (clasificadas por edad, sexo,…con ingenieros involucrados en el diseño del ascensor y gente de calle). Para ello se utiliza un equipo de reproducción de alta calidad, se escuchan y se comparan los diferentes sonidos y los jurados deben contestar un cuestionario con sus preferencias.

• Ejecución de un proceso de correlación entre el análisis objetivo (métricas) y el análisis subjetivo (análisis con jurado) para obtener mediante un proceso de regresión una variable (también llamada "modelo") personalizada que sustituye al dB para calcular el confort del ascensor. La correlación de la nueva variable con lo que manifiestan las personas es del 99%, frente al 66% de correlación del dB tradicional. Por tanto, ahora se dispone de un buen modelo psicoacústico que permite evaluar con precisión el comportamiento acústico de los ascensores con muy buena correlación, con la verdadera percepción de los usuarios de los ascensores.

Finalmente, se lleva a cabo un proceso de análisis de la relación entre la calidad sonora y las fuentes de ruido del ascensor (por ejemplo, la máquina, los cables o lo que sea), para mejorar el diseño de las fuentes más ruidosas y así optimizar el confort sonoro de los viajeros del ascensor.

GEP

TITANIO ALEAZIOEN MAKINAGARRITASUNAREN ULERMENA

MIKEL ARMENDIAk aztertu du titanio aleazioen mekanizazioa, prozesu honen parametro ezberdinak neurtuz: ebakidura tenperaturak eta indarrak, txirbil formazioa, etab.

Titanio aleazioak gero eta gehiago ari dira erabiltzen sektore aeronautikoan, baina euren aplikazioa mugatuta dago mekanizazio prozesuan lortzen den produktibitate baxuarengatik. Tesi honetan Ti6Al4V eta TIMETAL®54M aleazioen mekanizazioarekiko portaera konparatzen da, aldagai industrial (erremintaren desgastea) eta zientifikoak (ebakidura tenperatura, indarrak, etab.) aztertuz.

GEP

WARM TUBE HYDROFORMING OF 6082 ALUMINIUM ALLOY

IRENEO TORCA analiza los procesos de deformación de hydroforming en aleaciones de aluminio, mediante el empleo de líquidos a elevadas presiones y temperaturas empleando estudio numérico y experimental.

Esta tesis analiza los procesos de hydroforming (dar forma a metales mediante líquidos a presión). Se ha desarrollado una instalación de hydroforming con la que se han obtenido piezas de geometrías complejas. Se han empleado líquidos a elevada presión y temperatura para conseguir dar la forma deseada al material. Se ha desarrollado una metodología de trabajo, así como un profundo estudio del material a deformar.

GEP

OPTIMIZAZIO ERREMINTEN APLIKAZIORAKO METODOLOGIA

AITOR MILOk optimizazio erreminten aplikaziorako metodologia bat garatu du Behe-Tentsioko sarearen energia-eraginkortasuna hobetzeko.

Optimizazio erreminten aplikaziorako metodologia bat garatzen da Behe-Tentsioko sarearen energia-eraginkortasuna eta ondorioz sare elektriko osoarena hobetzeko helburuarekin. Baita, metodologiaren balioztatzea BT-ko hiru eremu desberdinetan aplikatuz gauzatzen da. Tesiaren emaitzak optimizazio erreminten aplikazioak BT-ko eraginkortasun maila hobetzeaz gain, bere garapen iraunkorra sustatu dezakela erakusten du.

GEP

GEOMETRICAL ACCURACY IMPROVEMENT

JON LARRAÑAGAk bere tesian profilaketa aldakorra eta beroketa lokalizatuak uztartu ditu.

Geometrical accuracy improvement in flexible roll forming process by means of local heating da tesiaren izenburua. Profilaketa aldakorra sekzio aldakorreko profil ezberdinak modu jarraian sortzeko aukera eskaintzen duen fabrikazio prozesu berria da. Prozesu honen bidez ekoizturiko sekzio aldakorreko profiletan akats geometriko bereizgarriak sortzen dira. Tesi honetan termikoki lagunduriko profilaketa aldakorra izeneko irtenbide termiko-mekanikoa proposatu eta ikertu da akats geometriko hauek gutxitzeko helburuarekin.

GEP

SORKUNTZA BARREIATUAREN INTEGRAZIOA

ANDER GOIKOETXEAk energia metatzeko sistemak erabiliz, sare elektrikoan energia berriztagarrien integrazioa handitzea bilatzen du tesi honetan.

Sorkuntza barreiatuaren integrazioa energia metatzeko sistema erabiliz, hori da tesiaren izenburua. Energia berriztagarrien eta Sorkuntza Barreiatuaren erabilera azkorrak erronka berriak aurkezten ditu sare elektrikoen orain arteko ereduari dagokionez. Energia Metatzeko Sistemen erabilera eztabaidatzen da aipatutako erronketatik eratorritako arazoak konpontzeari begira, sare elektrikoan Energia Berriztagarrien integrazioa handitzea ahalbidetuz.

ENPRESAGINTZA

OSASUN SAREAREN SORKUNTZA

LEONOR ELENA LOPEZek Fenomenoa ikuspegi sistemikoaren bidez aztertu zuen. Ikerketa gidatzean paradigma interpretazio bidezkoa izan zen; oinarriko metodoa kualitatiboa izan zen.

Tesi honetan Yucatan penintsulako eskualdeko osasun sarea aztertu da. Egin nahi den aldaketa honetan datza: erreferentzia-kontraerreferentziako eskema elkartua duen mailakako arreta paradigmatik sareko antolaketara pasatzea, non zerbitzu guztiak elkarrekin lotuta egongo diren. Horrek berrikuntza nabarmena ekarriko dio Mexikoko arreta medikoaren antolaketari.

AITOR OTXOA

"NIRE BIZITZA ALDATU DEZAKE SAN FRANTZISKOKO EGONALDIAK"

AITOR OTXOA ARRASATEARRA EUROPAKO BESTE DOZENA BAT EKINTZAILEREKIN BATERA SAN FRANTZISKORA ABIATUKO DA LASTER, ETA UZTAILA BERTAN EGINGO DU. EKINTZAILEENTZAT ANTOLATURIKO EGITASMO BATEN PARTE HARTUKO DU SILICON VALLEY-N. OTXOAK, LEINN IKASKETAK EGIN DITU, ETA AKKUA TALDEKO KIDEA DA.

Zergatik aukeratu zenuen LEINNeko gradua egitea?

Batxilergoa ari nintzen ikasten Bergarako Aranzadi ikastolan, MUko irakasle batzuk etorri ziren bertara LEINN gradua aurkeztera, eta asko gustatu zitzaidan. Nik enpresagintza arloa nuen gustuko, eta hasieran GADE egitea pentsatu nuen. Erabakia hartu baino lehen, ordea, orientatzailearekin hitz egitea erabaki nuen, eta, azkenean LEINN, hautatu nuen.

Bestalde, urte hartako maiatzean sorosle frogak egin ostean, bakteria baten ondorioz ia bi aste Donostia Ospitalean egin nuen, eta selektibitateko bigarren deialdira joan behar izan nintzen. Horreksorosle moduan lana egitea eta gauetan ikastera behartu ninduen. Selektibitatea uztailean egin eta arazo barik pasa nuen, nire aurreko nota mantenduz.

Arlo honetan eskerrak eman behar dizkiet Aranzadi ikastolako irakasle guztiei, asko lagundu baitzidaten batxilergoko bi urteetan. Ondoren, LEINNeko koordinatzaileekin batu nintzen Irun eta Oñatiko campusetan, elkarrizketa bat egin zidaten, eta nire perfila oso aproposa zela adierazi zidaten. Gradu hau aukeratzeko askotariko arrazoiak izan nituen, baina bereziki talde lanean aritzea asko gustatzen zait. Era berean, atzerrira joatea oso interesgarria zen niretzat. Hamasei urte nituenetik kanpoan bizi izan naiz, lehenengo txirrindulari bezala Orbean, gero arrebarekin Bergaran, eta azken urteetan ikasketen kontura Irunen. Gainera, graduaren filosofiak asko erakartzen ninduen; autogestionatutako taldeak, jakituria mugatutako prozesua eta irakasleekin sentitu nuen gertutasunak bertan parte hartzera eraman ninduen.

"Asko ikasteko asmoarekin noa eta bueltan ikasitako hori guztia praktikara eramateko asmoa daukat. Munduko ekintzaile onenak dauden lurraldera noa eta euren ezagutza eta lan egiteko metodologiak ikasi nahi ditut."

AKKUA taldeko kidea zara. Enpresa sortzailea eta ekintzailea. Zeintzuk dira zuen proiektuaren ezaugarri nagusiak?

Gure taldeak baditu bost ezaugarri nagusi eta ingelesez azalduko dizut: *creating events, social impact projects, service designing, business investigation* eta *community development*. Aurreko astean Anboto enpresaren sortzaile batekin bilera izan genuen, eta ondorengo galdera egin zigun: zer da ondoen egiten duzuena? Perfil desberdinak talde batean sartuz eta enpresagintza ikuspegia aplikatuz, proiektu edo ideia fin bat aurrera eramateko gai gara, eta hori da gure indargune nagusia. Gaitasuna, aukerak aprobetxatzeko ahalmena. Horren guztiaren gainean informazio gehiago dago gure blogean, eta interesa izan dezaketen guztiek aukera dute bertan sartu eta ikusteko zeintzuk diren gure proiektuak.

http://akkua.wordpress.com/multimedia/

Zeintzuk uste duzu direla ekintzaile baten ezaugarri nagusiak?

Argi eta garbi dago denok ez dugula balio ekintzaile izateko. Gaineratuko nuke oso prozesu zaila dela, denbora eta dedikazio handia eskatzen duena, eta hori ez da erraza. Era berean, gustukoa izan behar da proiektua, hau da, lana pozik egitean ezinbestekoa deritzot. Lan egiteko prest egon behar da, ordutegiari eta egutegiari begiratu gabe. Mugikortasun handiko pertsona izatea ere ezinbestekoa da, baina niretzat garrantzitsuena da jakituria eta iritzi eta ikuspegi berriak jasotzeko prest egotea.

Uztailean, Europako beste 11 ekintzailerekin batera, San Frantziskora zoaz hilabeteko

egonaldia egitera. Zein asmorekin zoaz Silicon Valley-ra?

Aukera sekulakoa da, eta proiektu berriak garatzeko asmoarekin joango naiz: BMW, Everis, Mc Cann eta Innovalleyrekin. Asko ikasteko asmoarekin noa eta bueltan ikasitako hori guztia praktikara eramateko asmoa daukat. Munduko ekintzaile onenak dauden lurraldera noa, eta euren ezagutza eta lan egiteko metodologiak ikasi nahi ditut.

Hilabeteko egonaldi ikaragarria izango da: Google, Ideo, Pixar, Twitter…bertatik bertara ikusteko aukera izango dut, eta eurekin lan egiteko. Era berean, Stanford Unibertsitatean egingo dut egonaldia, munduko unibertsitate garrantzitsuenetarikoan. Aukera aparta da, eta ez dut tren hau pasatzen utzi nahi. Gainera, Orbea etxearentzat egin beharreko guztiak egiten saiatuko naiz.

Nola gauzatu da amets hau? badakit Orbea enpresari eta beste zenbait lagun eta senideri eskerrak eman nahi dizkiezula, ezta?

Orbea etxekoei eskerrak eman behar dizkiet, alde batetik babesle bikainak izan direlako eta eurei esker ari naizelako bidea egiten. Oso ondo portatu dira, ateak beti zabalik izan dituzte niretzat eta eskertzekoa da. Amets hau bikoitza dela adierazi dezaket: alde batetik, Silicon Valleyra bigarrengoz bueltatzea ikaragarria da; eta, bestetik, bizikleta munduan dagoen enpresa batek ni babestea sekulakoa da. Gainera, Euskal Herriko enpresa bat izateak eta kooperatiba izateak garrantzitsuago egiten du.

Dirua eskuratzea ere ez da lan erraza izan, ezta?

Oso prozesu zaila izan da, denbora gutxi izan baitut eta bilera asko egin behar izan ditut, 40 bilera baino gehiago. Jende eta enpresa askok jarri zuten interesa, ,eta guztiei eskerrak ematea gustatuko litzaidake. Familian ere asko lagundu didate, eta babes handia eskaini didate, eta haiei ere eskerrak eman nahi dizkiet.

Zer suposatzen du zu bezalako ekintzaile batentzat horrelako abentura aberasgarrian parte hartzeak?

AITOR OTXOA
El emprendedor nacido en Arrasate fue cilcista en las categorías inferiores del equipo UCI Pro Tour Euskaltel Euskadi, pero una inoportuna lesión truncó su carrera.

Ziur nago jende asko ezagutuko dudala, beste perfil batzuetako ikasleekin lan egiteko aukera izango dut, eta hauen lana ezagutzeko aukera. Munduko enpresa garrantzitsuenetako langileekin lan egitea ere oso aberasgarria izango da. Garrantzitsua izango da iturri berriak ezagutzea, lan egiteko teknika berriak aztertzea eta gure eskualdean aplikatzeko aukera aztertu eta garatzea.

Zer espero duzu ikastea?

Gauza asko ikastea espero dut, nire bizitza aldatu dezakeen proiektua izan daiteke-eta.

Ez dut uste ezer zehatza izango denik, baizik eta arlo desberdinetan asko ikasiko dudala uste dut. Hilabete osoan arituko gara lanean, eta egunero gauza asko ikastea espero dut. Aurreko bidaian asko ikasi nuen, eta nire ikuspegia asko aldatu zen, beraz burmuina zabalik eramango dut ezagutza berria xurgatzeko.

Eta etorkizun hurbilean zer nahi duzu egin?

Irailean unibertsitateko hirugarren ikasturteari ekingo diot, eta 2012an Orbearekin jarraituko dut kolaboratzen. Bizitzako ametsa betetzen ari naiz. Aldi berean, 2012an Txinara edo Indiara joango gara AKKUA eta Tazebaezeko taldekideak, eta bertan asko ikastea espero dut. Ezagutza garatzen jarraitu nahi dut, eta bizitzako momentu guztiez gozatu.

MU-KO KIROL ZERBITZUAK

HEZIKETA INTEGRALAREN BILA

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK BETIDANIK IZAN DU PERTSONAREN HEZIKETA INTEGRALA HELBURUTZAT, ETA HORRETARAKO PLANTEATU ZUEN HEZKUNTZARAKO MODU BERRI BAT, HOTS, MENDEBERRI HEZKUNTZA PROIEKTUA. GAUR EGUN BESTE MOLDAKETA BERRI BAT IRITSI ZAIGU EUROPATIK: UNIBERTSITATERAKO HEZKUNTZA PROIEKTU BERRIA.

Proiektuak ekarriko duen aldaketetako bat honako hau izango da: arlo akademikotik kanpo egiten diren hainbat ekimen curriculumaren barnean txertatzea. Argitaratu berri den azken dekretuaren arabera, kirol eta kultura ekintzetan parte hartzeagatik edo/eta boluntario edo unibertsitate ordezkaritzagatik sei kreditu ECTS eskainiko dira.

ALDAKETA HONEK NOLA ERAGINGO DIO KIROL ARLOARI?

Batetik, eragin positiboa izan dezake, izan ere, jarduera fisikoa praktikatzea gustuko duenak eta "denbora eza" argudiatuta praktikarik egiten ez duenak, motibazio berri bat izan dezake. Pertsona horri kredituak lortu behar izateak bultzada bat eman diezaioke jarduera fisikoa praktikatzerako orduan.

KIROLAREN KREDITUAK

Unibertsitaterako Hezkuntza proiektu berriak ekarriko du arlo akademikotik kanpo egiten diren hainbat ekimen ere curriculumaren barnean txertatzea; horien artean kirola.

Unibertsitateko kirol zerbitzu garen heinean, gogorarazi nahi dugu kirola egiteak osasuna hobetzeaz gain, pertsona bere osotasunean formatzen laguntzen duela. Azken finean, jarduera fisikoa edota kirol praktikaren bitartez, hainbat konpetentzia lantzen dira. Besteak beste; lidergoa, talde lana, kooperazioa, lehiakortasuna, galtzen ikastea, diziplina, errespetua...

Balio horiek guztiak ez dira liburuak irakurtzen soilik barneratzen, ez dira aulkian arbelari begira gaudela ikasten, praktikaren bitartez barneratzen dira. Jarduera fisikoa derrigorrean praktika da, bizipena, esperientzia, komunikazioa... bere baitan balio horiek guztiak dakartza kirolak eta ohartu gabe landu eta ikasten dira.

Talde baten partaide izanik, ezinezkoa da talde lanean ez aritzea eta gutxiago taldekideekin ez kooperatzea. Talde bat aurrera ateratzeko beti behar izaten dira gurditik tiratu behar izaten duten pertsonak, gainontzeko kideak animatzen dituenak, liderrak alegia. Bakarkako kiroletan, ordea, norbere burua-rekiko exijentzia, motibazioa, hobetzeko nahia, esfortzua… lantzen dira.

KEZKA NAGUSIAK

Baina badira oztopo edo kezkak sortzeko arrazoiak ere. Kredituak lortzearren edozein ekintzatan apuntatuz gero, praktikak berak ematen dituen onurak alde batera gelditzen dira, eta ez dira nahi diren helburuak lortzen. Orain kirol zerbitzu, kultura talde eta beste dinamizatzaile batzuei dagokigu gai hau ahalik eta ondoen zehaztu eta kudeatzea, benetan ekintza hauetan parte hartzen dutenek balio egokiak barnera ditzaten.

Kirol zerbitzuaren aholkua: jarduera fisikoa bizitzan barneratu, jarduera fisikoaren esperientziak bizi eta beraiekin gozatu eta azken finean… ikasi.

MUITTU

HAIMA
MUko eskolaz kanpoko ekintzen sustatzaile Muittuko kide batzuk Saharan, lesbaa elkartekoekin.

ARGAZKIA: OIER ITZULAIN

HAIMA TALDEA SAHARAREN ALDE LANEAN

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK GARATZEKO EREMUA DA MUITTU. HELBURU NAGUSIENA DA PERTSONAK GARATZEKO ETA GIZARTEAN ESKU HARTZEKO GAI IZANGO DEN UNIBERTSITATE MUGIMENDUA GAUZATZEA. HAINBAT EKINTZA EGITEN DITU MUITTUK, ETA HORIEN ARTEAN DAGO HAIMA PROIEKTUA

Haima taldea duela lau urte sortu zen. Ikasle talde batek hiru eguneko jaialdi bat egitea proposatu zuen, zenbait saharaui eta Gobernuz Kanpoko Erakunde gonbidatuz. Jaialdi horretan sortu zen harremana Nubi eta Iesbaa elkarteekin, eta ikasle talde bati ideia ona iruditu zitzaion ordura arte egindako ekintzetan sakontzea. Horrela sortu zuten Haima.

Haima hiru urratseko proiektua da. Lehenengo urtean, Elkarhezitzenekin ikastaro bat antolatu zen bizikidetzari buruz formakuntza jasotzeko eta hurrengo urratsak nola eman jakiteko.

Bigarrenak Saharako bidaia gauzatzea zuen helburu. Horretarako, dirulaguntzak bilatu eta sentsibilizazio ekintzak antolatu ziren: hitzaldiak, afari solidarioak, kontzientziazio kanpainak, etab. Asmoa zen bigarren urteko Aste Santuan bidaia egitea, baina diru arazoak medio, orain arte beti hirugarren urtean joan dira.

Hirugarren urratsean, erreportaje bat egitea zuten helburu. Bizitako esperientzian ateratako argazki eta informazioarekin erreportaje bat egin zuten, ondoren eskola eta hedabideetan erakusteko eta aldarrikapen gisa erabiltzeko.

SAHARARA BIDAIA

Aste Santuan egon zen Haima taldea Saharan. Apirilaren 21ean irten eta hamar egun igaro zituzten han. Oier Izulain, Haima taldeko partaidearekin egon gara hizketan eta adierazi digunez, Saharan bizi dutena hitzekin aditzera ematea ez da erraza. "Harrigarria da ikustea, Marrokiar autoritateengandik tratu txarrak jaso arren, nola ez dieten uko egiten beren xede eta idealei."

Bidaia prestatzen Iesbaa elkarteko Olaiak eta Nubi elkarteko Agurnek lagundu zieten, eta Saharan, Afapredesako Abdeslam-ekin programa bat antolatu zieten.

Saharara ezin ziren esku hutsekin joan, eta denetarik eraman zuten: elikagaiak, medikamentuak eta eskolarako materiala. Izugarrizko esperientzia bizi izan zutela adierazi du Oierrek, eta behin eta berriz aipatu du saharararren abegikortasuna. "Aipagarriena bertara iristen zarenean, haien abegikortasuna, eskuzabaltasuna eta adeitasuna dira. Iristen zaren momentutik zure etxean bazina bezala sentiarazten zaituzte eta bigarren egunean familiaren parte zarela dirudi".

Ez dute arazorik izan antolakuntzan eta izugarrizko babesa jaso dute Nubi eta Iesbaa elkarteengandik.

IRAILA

- **Ikasturte Hasierako Irteera.** Biteri Ikastetxe Nagusiak antolatua. Irailak 5, 6.
- **Aragoako Sari Handia. GP Motorra** Irailak 15, 16.
- **Haima taldea Saharan.** Argazki eta bideo emanaldia. Irailak 20.
- **Urban day.** Skate erakustaldia, ranpak, graffitiak, eta abar. Irailak 27
- **Bertso afaria.** Irailak 29

EKAINA

HITZALDI INFORMATIBOAK
MBA EXECUTIVE:
Eguna: Ekainak 7, asteartea.
Ordua: 18:30
Tokia: Arabako Ganbera - Manuel Iradier, 17 / Vitoria-Gasteiz.

CURSOS DE FORMACIÓN
GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

- FUNDAMENTOS DE LA VISIÓN ARTIFICIAL ORIENTADOS A LA INDUSTRIA.
- GESTIÓN DE PERSONAS.
- ACEROS PARA UTILLAJES Y MOLDES.
- (M4) GESTIÓN DE LA SEGURIDAD INFORMÁTICA.
- GESTIÓN DE EDIFICIOS E INSTALACIONES.
- COACHING COMO HERRAMIENTA DE MEJORA.
- APLICACIÓN DE LA VISIÓN ARTIFICIAL EN LA INDUSTRIA.
- FRACTURA DE LOS METALES: ASPECTOS METALÚRGICOS.
- PROCESOS DE TRANSFORMACIÓN DE CHAPA (MODULO 3).
- JORNADA PDU: LA GESTIÓN DE RIESGOS EN LOS PROYECTOS (CAMARA BILBAO).
- CONFERENCIA SOBRE ELECTRÓNICA DE POTENCIA: PRESENTE Y FUTURO (GARAIA).
- DIRECCIÓN EMOCIONAL EN LA CARRERA POR LA EXCELENCIA (OTALORA).
- CONTRATAS Y SUBCONTRATAS. CESIÓN ILEGAL DE TRABAJADORES (OTALORA).
- JORNADA SOBRE LUBRICANTES Y SISTEMAS DE LUBRICACIÓN.
- TRANSPORTE Y LOGÍSTICA INTERNACIONAL .
- GESTIÓN DE MANTENIMIENTO ASISTIDO POR ORDENADOR.
- MATLAB - SIMULINK .
- MEJORAS EN LOS PROCESOS LOGÍSTICOS: CASOS PRÁCTICOS.
- AUTOMATISMOS ELÉCTRICOS
- (MANTENIMIENTO PRODUCTIVO TOTAL.
- JORNADA SOBRE RODAMIENTOS Y ELEMENTOS DE GUIADO LINEAL.

UZTAILA

HITZALDI INFORMATIBOAK
MBA-MASTER OFICIAL EN DIRECCIÓN DE EMPRESAS:
Eguna: Uztailak 2, larunbata.
Ordua: 11:00.
Tokia: Enpresagintza Fakultatea. Ibarra zelaia, 2 / Oñati.

CURSOS DE FORMACIÓN

- TÉCNICAS AVANZADAS DE EDICIÓN DE DOCUMENTOS: LATEX.
- FORMACIÓN BÁSICA GIBBSCAM 2 ½ EJES FRESADO.
- MICROCONTROLADORES DE 32 BITS. ARM CORTEX-M3.
- JORNADA SOBRE TRANSMISIONES MECÁNICAS.
- SISTEMAS DE ALMACENAJE Y TÉCNICAS DE PICKING.

IRAILA

HITZALDI INFORMATIBOAK

- CÓMO GESTIONAR EFICAZMENTE LAS AYUDAS A LA FORMACIÓN.
- GESTIÓN POSITIVA DE CONFLICTOS.

URRIA

- **Futbol solidarioa** Urriak 4.
- **MU ikasturte Hasiera Topaketa** Irunen. Urriak 14.
- **Elkarbizitza** Beizamako aterpetxean astebarua: jokoak, dinamikak eta Ikastetxe Nagusiaren antolaketa aurrera eramaten. Urriak 28, 29, 30.

CURSOS DE FORMACIÓN

- CURSO AVANZADO DE AUTOMATIZACIÓN INDUSTRIAL.
- METALOGRAFÍA (MODULO 1)
- METALOGRAFÍA Y ENSAYOS MECÁNICOS.
- CALIDAD EN EL PROCESO DE FABRICACIÓN.
- CÓMO ELABORAR EL PLAN DE FORMACIÓN.
- TCP/IP Y ETHERNET.
- EXPERTO EN CONFIGURACIÓN DE REDES CISCO – CCNA (SEMIPRESENCIAL).
- GRADO EN INGENIERÍA EN ORGANIZACIÓN INDUSTRIAL – ON LINE.
- DIAGNOSTICO DE AVERIAS CON PLC SIEMENS.
- ENSAYOS MECANICOS (MODULO 2).
- INTRODUCCIÓN AL ANÁLISIS DE LA VIDA A FATIGA DE COMPONENTES METÁLICOS.
- INYECCIÓN DE PLASTICOS.

MBA

- CURSO EXPERTO EN MARKETING Y MANAGEMENT DEL SURF Y DE LOS DEPORTES DE DESLIZAMIENTO: inicio 6 de octubre 2011.
- DIRECCIÓN DE EMPRESAS: inicio 11 de octubre 2011.
- CÁMARA DE GIPUZKOA: inicio 7 de octubre 2011.
- CÁMARA DE ÁLAVA: inicio 14 de octubre 2011.

Informazio geihiago/
más información:
www.mondragon.edu/muplus

AGENDA

RENAULT OCASION. ZUK DENA NAHI DUZULAKO

CLIO
1.2 DCI 75CV 5.580KM
9.975€

MEGANE
2.0 DCI 150CV 80.140KM
9.500€

ARRASATE
S.ANDRÉS,8
TEL. 943. 712472

AZPEITIA
LOIOLA,20
TEL. 943. 810808

ELGOIBAR
OLASO,17
TEL. 943. 742755

TOLOSA
POL.ANOETA,S/N
TEL. 943. 652844

IRUN
LETXUMBORRO,89
TEL. 943. 639122

DACIA

www.autoberri.com

RENAULT

HARDGREEN
pneumatiko ekologikoa

EROSKI ingurumenarekin arduratzen da, eta, horregatik, Erabileraz Kanpoko Pneumatikoak, (EKP) kudeatzeko sisteman parte hartzen du, berrerabilpena sustatzeko.

HARDGREEN pneumatikoak kalitatea, berrikuntza eta batik bat ekologia pneumatikoen munduan sartzen dute.

ARRASATEKO HIPERMERKATUAN

EROSKI
zurekin

Musakola auzoa 11
Arrasate
943 71 10 30
www.grupoeroski.es

arteman
KOMUNIKAZIOA

www.arteman.org

Komunikazioan, diseinuan
eta marketinean adituak.

IKUS-ENTZUNEZKOAK
DISEINUA
KAZETARITZA
INTERNET
AHOLKULARITZA